


Ura eta Leiun

LEIUN

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa



Julian Lizarragak 2024an egindako

iturria

ITURRIAK

Leiunen hainbat iturri daude; horietako zenbait denboraren joan-etorrian galdu dira. Erredinxoko, Mendioroxoko, Karakotxoko, Arantzegi, Aska eta Belokaingo iturriak ditugu, baita herriko iturburua ere, duela urte gutxi arte, 2019ra arte, emaria izan duena.

LATSAGIAK

Herrian berean zegoen iturburua eta aska, aziendari edaten emateko eta garbiketarako baliatzen zena. Inoiz lehortu izan zelarik, herritarrak errekan beheiti joaten ziren, herritik beheiti jarioa izaten baitzuen berriz ere Laboara arte. Lixiba errekan egiten zen.

IBAIK, ERREKAK

Herrian bi erreka dira: nagusia Arantzegikoa da, bestea Chaparraletik (txapardia) datorrena.

UHARKAK eta PUTZUAK

Herrian diren uharkak egin ziren iturburuko ura etxeetan biltegitratzeko. Motor bidez goititzen zen ura herriko etxeetara. Ez guztietara, Palazzo eta Etxeberri etxeetara. Palazzo etxean bazen ubide bat iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duena, sakona, erreka egiten duena. Arantzegiko erreka kolpea jo eta herritik igarotzen denean, ubidea ixten duten ateak irekitzen dira, bertatik hustu dadin.

ASKAK

1942an, herriko bi zubiak hormigoiarekin egin zituzten, bai eta mendian bi aska ere: bata Paco del Aska (Askako ospela) eta bestea Belokaingoa.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Esan bezala, iturriak ondoko dermioetan daude: Erredinxoko, Mendioroxoko, Belokain, Aska, Karakotxoko eta Arantzegi.

UR-HORNIKETA

Herria babespeko kontzeju bihurtu zenean, Diputazioak, 80ko hamarkadan, gaur egungo ur-biltegia egin zuen, herriaren gainean. Ura iturburutik biltegira igotzen zen ponpen bidez, gero herrira banatzeko. 2019an, ura zuzenean eraman zen biltegira "Mendinueta soluziotik", Urrozko Argonga menditik. Garai horretan utzi zioten ponpek funtzionatzeari, ura bere kabuz doalako biltegraino.

LIZOAINIBAR-ARRIASGOITIKO MEMORIAREN BILKETAKO ELKARRIZKETAK:

LEIUN (Ildefonso Azparren / Alejandro Azparren)

Ura iturritik baldeka ekartzen zen. Iturriak ponpa batekin funtzionatzen zuen. 1962. urtearen inguruan iritsi zen txorrotako ura. Bi etxe zeuden, eta horietako bakoitzak andel bat zuen, eta motor batekin igotzen zuten ura.

Emakumeak arduratzen ziren ura ekartzeaz. Buruan ekartzen zuten, edarra izeneko zurezko ontzi batean. Edarretan 40-50 litro inguru sartzen ziren.